


LGBTI arloko Berdintasun-politiken II. Foroa Kirola

2020ko martxoaren 25a
Euskalduna
Bilbao

II Foro Políticas de Igualdad LGBTI: el deporte

25 de marzo 2020
Euskalduna
Bilbao



Izena - ematea doan
Inscripción gratuita en
www.ortzadarlgbt.eus

Antolatzailea / Organiza:



Babeslea / Patrocina:



Laguntzailea / Colabora:



AURKEZPENA

LGBTI arloko berdintasun-politikei buruzko foroa 2018an sortu zen, denboran irauteko asmoz; foro edo bilgune horrek eztabaida- eta hausnarketa-gune bat sortu nahi du LGBTI kolektiboarentzat egiten diren politiken izaerari eta komenigarritasunari buruz, gaur egun han-hemen garatzen diren jardunbide egokiak erakunde-, gizarte- eta ekonomia-eragileei erakusteko helburuz. Azken batean, aldizkako foro bat eratzea da xedea, ekitaldi bakoitzean eguneroko bizitzaren esparru jakin bat jorratuko duena.

Azken batean, LGBTI berdintasun-politikei buruzko foro honek hiru helburu ditu nagusiki:

1. LGBTI mugimenduari atxikitako pertsonen buruzko eztabaida-gune egonkorra sortzea hainbat gizarte-esparrutan.
2. Dena delako esparruan garatzen diren jardunbide egokiak erakustea.
3. Esparru jakin batean parte hartzen duten eragileak, nork bere jardueran, LGBTI ikuspegia ezartzen has daitezten edo, hala badagokio, aurrera egin dezaten bultzatzea.

2018an, Unibertsitatearen eta horren baldintzatzaileen eginkizuna jorratu genuen; oraingo honetan, berriz, kirolaren esparruari heldu nahi diogu. Ahalik eta ikuspegi zabalenetik ulertuta heldu ere.

EGOITZA



Federico Soriano eta Dolores Palacios arkitektoek etengabe eraikitzen eta Euskalduna ontziola egon zen diketik urgaineratzen den itsasontzi gisa irudikatu zuten jauregia. Euskalduna jauregiak Enric Miralles-ari jaso zuen 2001ean, Espainiako Arkitekturaren VI. biurtekoan.

Nola heldu: [Euskalduna jauregia](#)

HARTZAILEAK

- Oinarrizko eta eliteko kirolariak.
- Kirol-elkarteetako zuzendaritzako kideak eta teknikariak.
- Kirol-azpiegituren kudeatzaileak.
- Ikastetxeetako kirol-taldeen arduradunak.
- Erakundeetako Kirol eta Berdintasun arloetako teknikariak.
- Berdintasuna eta, bereziki, kirol-esparruko aniztasuna lantzen duten **LGTBI arloko antolakundeetako arduradunak.**
- Kirol-esparruko titulazioetan, berdintasuna eta LGTBI aniztasuna aintzat hartzen dituzten **irakasleak eta ikasleak.**

EGITARAUA

- 8:30 – 9:00** Harrera, dokumentazioa eta akreditazioa jasotzea
- 9:00 – 9:15** **LGBTI arloko berdintasun-politikei buruzko II. Foroaren aurkezpena**
- Beatriz Artolazabal Albeniz** andrea
Enplegu eta Gizarte Politiken sailburua. *Eusko Jaurlaritza.*
Lorea Bilbao Ibarra andrea. Euskara, Kultura eta Kirol diputatua.
Bizkaiko Foru Aldundia.
Nekane Alonso Santamaría andrea. Berdintasun zinegotzia.
Bilboko Udala.
- 9:15 – 10:00** **Hasierako hitzaldia**
- Transgeneroa automobilismoan: ezina ekinez egina**
- Charlie Christina Martin** andrea
Stonewall Sports-eko txapelduna, sirenen zaindaria eta Athlete Ally antolakundearen enbaxadorea. Pilotu transgeneroa Le Mans-eko 24 orduetan.
- 10:00 – 11:30** **Erakundeak, gizarte-aldaketaren eragile**
- 10:05 – 10:30** **Zure Taldekoak Gara: EAEko kirol-arloko bazterkeriaren kontrako tresna**
Isabel Abella Ruiz andrea. Abokatu eta ZTGren koordinatzailea. BasqueTEAM
- 10:35 – 11:00** **Txartel Beltza eta beste ekintza batzuk Eskola Kirolaren arloko indarkeriaren aurka**
Andoni Llosa jauna. BFAko Kirol koordinatzailea
- 11:05 – 11:30** Mahai-ingurua.
- 11:30 – 12:00** Atsedena.
- 12:00 – 13:30** **Kirol-eragileen ezinbesteko esku-hartze LGBTIfobia prebenitzen**
- 12:05 – 12:30** **Aniztasuna enpresan, hazkunde-faktorea**
Sergio Barcenilla jauna. Emtesport Proiektuak.
- 12:35 – 13:00** **Wats. Balioetan oinarrituriko kirola eta indarkeriaren prebentzioa**
Lander Iraragorri jauna eta **Alex Navarro** jauna. WATSen sortzaileak.
- 13:05 – 13:30** **Koloretako futbola: berdintasuna, futbola eta Athletic Club Fundazioa**
Galder Reguera jauna. Athletic Club Fundazioaren Egitasmoen arduraduna.
- 13:30** Mahai-ingurua
- 14:15** **Goizeko saioaren amaiera**

ARRATSALDEKO SAIOA

17.45 - 18.00 Harrera, dokumentazioa eta akreditazioa jasotzea

18:00 - 18.45 **LGBTI+ pertsonen kirol-partaidetza Espainiako testuinguruan: lehen emaitzak**

Javier Gil Quintana jauna. Valentziako Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko irakasle elkartua eta "jarduera Fisikoa, Hezkuntza eta Gizartea" ikerketa-taldeko kidea

18:45 – 20.00 **Elkarrizketa: LGBTI erreferenteak sortzen kirol-arloan**

- **Víctor Gutiérrez Santiago** jauna
Waterpolo-jokalaria. Tarrasako igeriketa-taldea.
- **Nora Gómez Carrión** andrea.
Izotz-hockeyko jokalaria.

20:00 Amaierako ekitaldia

***Ingelesetik gaztelaniara aldirerako itzulpena**

Charlie Christina Martin

Lasterketa-pilotua



(Leicester, 1981) Charlie Martinek 2006an hasi zuen kirol-ibilbidea Hill climb Leaders Championship delakoan, British Hill Climb Championship delako txapelketaren barruan, Peugeot 205 batean, Europako zirkuituan hasi aurretik. 2018an, Martinek Richardson Racing taldearekin bat egin zuen Ginetta GT Challenge-n lehiatzeko, hau da, Britainiako GT Txapelketari laguntzeko kategoria ofizialean.

2018ko martxoan, TDOV (*Transgender Day of Visibility*) ekitaldian automobilismoko transgenero gisa agertu zenetik, Charlieren garaipen-istorioak ezbeharraren aurrean ikusleen grina harrapatu du eta, ondorioz, aldizka agertzen da hedabideetan. Orain, bere plataforma baliatzen ari da LGBT kolektiboaren ikusgarritasuna sustatzeko eta, zehazki, trans izaeraren aldeko kontzientzia eta onarpena pizteko, gizartean aldaketa positiboa bultzatzeko itxaropenaz. Le Manseko 24 orduetan lehiatzea du helburu, eta hori lortuz gero, LGBT munduan historia egitea, txapelketa horretan lehiatzen den lehen pilotu transgeneroa bilakatuta. Stonewall Sportseko txapelduna da, sirenen zaindaria eta Ally Athlete antolakundearen enbaxadorea.

Isabel Abella Ruiz de Mendoza

Abokatua eta ZTGren koordinatzailea. BasqueTEAM

Zuzenbideko lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean. Familia Zuzenbideko masterra, Tratu txarrak eta Genero Indarkeria masterra (UNEDen) eta "Indarkeriarik gabeko heziketa: jazarpena, ziberjazarpena, eskola-jazarpena, abusua... adingabeetan (UNED)" Unibertsitateko aditu-diploma dauzka.

Bere lan ibilbidea berdintasunari lotuta egon da. 2000. urtean, Europako Parlamentuan lan egin zuen eta, ondotik, COFAVIC – GKEn, giza eskubideen defentsan (Venezuela). 2006az geroztik, Abella Legal sozietateko zuzendaria da. Gaur egun, UPV/EHUko Gizarte Justiziaren aldeko Klinika Juridikoan parte hartzen du eta unibertsitate horretako masterrean dabil irakasle.

Lanetik at, Bizkaiko bi eskubaloi-klubetako berdintasun-arduraduna da.



Lander Iraragorrieta Alex Navarro

WATSensorzaileak

LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduaren jabeak dira, eta bi-biak WATSen sortzaileak dira. WATS Bizkaia sortutako enpresa da, kirolaren balioak eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzea helburu duena. 2017tik hona, 800 entrenatzaile eta 500 familia baino gehiago trebatu dituzte eta, horrez gain, Mondragon Unibertsitatearekin batera, kirol-berrikuntzako graduondokoa eta masterra eskaintzen dute.



Proiektu horrek hainbat erakunderen babesa du: Mondragon Unibertsitatea eta Kordobako Unibertsitatea, Bilboko Udala, BBK Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Eibar Kirol Elkarte, Euskaltel, Gaztela eta Leongo Saskibaloia Federazioa eta Bizkaiko Futbol Federazioa, besteak beste.

Sergio Barcenilla

Emtesport. Proiektuen arduraduna

(Bilbo, 1978) Hezkuntzako gradua atera zuen UPV/EHUn eta, gainera, goi-mailako kirol-teknikaria da. Gaur egun, hainbat irakasgai ematen ditu, UPV/EHUko kirola kudeatzeko masterraren esparruan. Era berean, gogotik parte hartu du Emakumeen eta Kirolaren Estatuko Biltzarraren antolaketan, Valentzian (2017) eta Bilbon (2019).

Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan 15 urte eman ondoren, batik bat, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako proiektuak lantzen, azken lau urteotan kirolaren arloari atxikitako gizarte-berrikuntza, prestakuntza eta kudeaketaren inguruko proiektuak garatu ditu Emtesporten eta Argibide aholkularitza-enpresan eta, bertatik, jarduera fisikoarekin, osasunarekin eta kirolarekin lotutako proiektu ugari artezten ditu. Bere jarduera-ildo nagusiak Agenda 2030en garapena, eraldaketa digitala eta kirol-kudeaketari aplikatutako Big data dira; bestalde, herritar guztien parte-hartzea sustatzen duten gune osasungarriagoak eta jarduera fisikoko nahiz osasun-proiektuak diseinatzen ditu.

Azkenik, 2016tik, Bizkaiko Eskubaloia Federazioko presidentea da, eta kirol hori gure lurraldean sustatzen, antolatzen eta zabaltzen laguntzen du.

Galder Reguera

Athletic Club Fundazioaren Egitasmoen arduraduna

(Bilbo, 1975). Filosofiako lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean. *Arketypo*, arkitektura- eta arte-aldizkariaren erredaktore-burua izan da eta, ondoren, *Euskadi de Lápiz*, arte garaikideko aldizkariaren arduraduna. 2008. urtetik, Athletic Club Fundazioan lan egiten du, eta gaur egun Erakundearen Gizarte Erantzukizunaren arloko arduraduna da. Azken bolada honetan, kultura, gizarte eta kirol programak garatu ditu arrakasta handiz. Fundazioan lan egiteaz gain, idazlea da, eta zazpi liburu argitaratu ditu, azkena "Familia liburua" (SeixBarral, 2020).



Javier Gil Quintana

Valentziako Unibertsitateko irakasle elkartua
"Jarduera fisikoa, Hezkuntza eta Gizartea" ikerketa-taldeko kidea

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna. Kirolaren soziologia, historia eta antropologiako masterra egin zuen Paris-Descartes Unibertsitatean, eta 2017an amaitu zuen gorputz-hezkuntzako eta eskola-adineko kiroleko curriculum ezkutuari buruzko tesia.

Gaur egun, Valentziako Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko eta Errioxako Nazioarteko Unibertsitateko irakasle elkartua da. Hainbat Zientzia batzordetako kide izan da, eta "CEMEA" eskola berriaren nazioarteko elkarteko kide da, zehazki, "Jolasak eta Jolas-ildoko jarduerak" deritzon ardatzean eta Paris Descartes Unibertsitateko Techniques et Enjeux du Corps (TEC) laborategian.

Javierren prestakuntza akademikoa eta gizarte-engaiamendua direla eta, hainbat unibertsitatek osatutako "LGBTI, gorputz-hezkuntza eta kirola" sarean sartu da. Unibertsitateek LGBTI arloko pertsonak jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan duten parte-hartzea eta esperientziak aztertzen dituzte. Gainera, Club Esportiu LGTB+ Samarucs Valenciako presidentea da.

Víctor Gutiérrez Santiago

Waterpolo-jokalaria. Tarrasako igeriketa-taldea.

(Madril, 1991) Ikasketez den bezainbatean, Kazetaritzako eta Ikus-entzunezkoen Komunikazioko gradu bikoitza dauka, eta erakunde-komunikazioari, ekitaldiei eta protokoloari buruzko masterraren jabe da. Kirol-arloan, waterpolo-jokalaria profesionala da estatuko mailarik gorenean. 2013an, Espainiako Kopako eta Super Kopako txapeldunorde izan zen, eta Ligako goleatzaile nagusi izan da azken hiru denboraldietan. Espainiako taldean, Europako txapeldunorde izan da 19 urtez azpikoetan, eta Munduko txapeldunorde 20 urtez azpikoetan. Munduko Txapelketa jokatu zuen 2017an, Budapesten.



Izaera lehiakor eta garaipen-goseagatik nabarmentzen da, baita bere askonahiagatik, baina, batez ere, gizarte-engaiamenduagatik. 2016an, lehen kirolari espainiarra izan zen homosexualitatea jendurrean aitortzen, kirolaren esparruan, sexu-orientazioari lotutako tabuak apurtzeko asmoz. Homosexualitatea eliteko kirolean ikusarazteko konpromiso hori dela eta, sari esanguratsuak eskuratu ditu:

- Alan Turingsaria - Ikusgarritasuna kirol-arloan sustatzeko Madrid Diversa saria (2018)
- Kirol-arloko Aniztasunaren saria, Alan Turing sariaren 2. edizioan. Arona (2018)
- Baeza Diversa saria (2016), Kirol sailean
- Harrotasunaren Jokoen enbaxadorea (Madrid, 2016)
- LGBTI Harrotasunaren pregoilaria (Madril, 2016 eta 2018)

Nora Gómez Carrión

Izotz-hockeyko jokalaria

(Santander, 1957) Santanderren jaio zen, baina bizitzaren erdia Donostian eman zuen eta, ondoren, Nafarroara joan zen bizitzera. Peritutzan elektronikoa ikasi zuen, baina 22 urte daramatza AMC España enpresan merkataritza-agente gisa lanean eta, gaur egun, lantalde buru gisa.

Kirol-esparruari gagozkiola, berrogeita zortzi urte eman ditu izotz gaineko hockey-an jokatzen. Donostiako Txuri Urdin izotz-hockeyko taldean hasi zen. Bere kirol-ibilbidean, liga eta kopako titulu ugari irabazi ditu. Era berean, Espainiako izotz-hockeyko selekzioko kide izan zen. Duela lau urtetik, Iberdrola emakumezkoen ligan aritzen da. Lehenik TxuriUrdin taldearekin, eta egun Logroñoko Milenio Panthers taldearekin.

Bere gizarte-konpromisoaren ondorioz, Nafarroako LGBTI kolektiboaren defentsan aitzindari izan zen Kattalin gorriren presidentea izan zen 2015ean. Garai horretan, Nafarroako Parlamentuak LGBTI+ legea onartu zuen eta Noraren erakundeak sinatu zuen. Gaur egun, Dekumas LBT elkarteko kidea da.



o

Andoni Llosa

BFAko Kirol koordinatzailea

Txartel Beltzaren, Eskola Kiroleko ikusle onen dekalogoaren eta gurasoentzako Eskola Kirobaren gakoen sortzailea.

Joko garbiaren dekalogoaren eta Heziki modalitatearen sortzaileetako bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kiroleko Begiraleen Ikastaroa sortzeko erakunde-lantaldean parte hartu du, eta Eskola Kirobaren Erakunde arteko Batzorde Teknikoko kidea da.

